

I. Errefrau Poteoa Areatzan 16an Estiballes eta Ajuria bertsolariakaz

12. orrialdea

Pelotari asko Zeanurin

Zeanuriko pelota eskolan eskupelotan eta palan jokatuten ikasten dabe ume eta gazteak. Juan Mari Arrizabalaga entrenatzailearen ustez herri txikia izateko pelotari asko dagoz Zeanurin eta maila ona daukie. Bigarren urtea da be Zeanurin pala eskolak emoten hasi ziralda eta "nesken kopurua eta euren gogoak gorantza doaz agiri-agirian". 10. orrialdea



Formato txikiagoa eukiko dau aurten Mendi Amesgarriak-ek

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

196

2013ko zemendiaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Indarkeriaren kontra, martxan

Zeanuritik eta Bediatik urtenda eta Dimaraino martxa morea egingo da hilaren 24an, edozein indarkeria mota barik biziteko eta andren abortatzeko eskubidea aldarrikatzeko. Dimako herriak harrerea egingo deutse ibiltariak eta hurrengo egunean konzentrazioa egingo da Igorreko Kultur Etxe parean, zemendiaren 25a, Andranako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Egunaren ekitaldien barruan.

Andren kontrako indarkeriaren arazoa gizarte guztiaren arazoa dala konzientziatzeko eta bardintasunean oinarritutako gizarte bat zelana eregi hausnartzeko dokumentala, kontzertu bat eta hainbat berbaldi antolatu dira. Ikusentzunezkoak jagokienean, *Mujeres supervivientes* dokumentala egingo da ikusgai Arteako udaletxean hilaren 17an eta Beldur Barik sari banaketan, Arratiako gazteak egindako lanik onenak be ikusi ahal izango dira. Berbaldietan, bardintasun

ezaren eragina osasunean, bardintasuna eta krisia, umeentzako ipuinak eta sexismoa eta feminismoaren erronkak gaiak jorratuko dira. Gainera, hilaren 22an, Bediako puntu ez seguruen mapea aurkeztuko da.

Arratian, igaz, indarkeria hori sufridu eben 15 andra atendidu zituen Arratiako Udalen Mankomunidadeko Gizarte langileak. Horreetatik % 60k, Gizarte Zerbitzua bera izan eben sarbide, eta % 40 Ertzaintzak bideratutakoa izan zan, andreak horretarako baimena emon eta gero. 5. orrialdea



Martiko martxa morea Artean.

BEDIA

Ordenantza barriak aldaketak ekarriko ditue herrian

Bertako nekazaritza sustatzea eta herriko plazeari bizitza emoteko merkadua egiteko, urtailean indarrean ipiniko dan ordenantza bat egin dabe Bedian. Ez da halanda be ordenantza bakarra izango. Alkarteai emoten jakiezan diru-laguntzak, ortuetako txabolak, etxeko animaliak eta txosnak araututeko beste horrenbeste ordenantza egin dabez Bedian.

6. orrialdea

ARRATIA

Zezipi Deuna dala eta kontzertu ugari

Zezipi Deuna edo Erromako Zezipia, Erroman jaiotako zemendiaren 22an eta Katanian hil zan 230. urtean gitxi gorabehera. Egun horretan eleiza katolikoak eta ortodoxoak bere eguna ospatuten dabe. Zezipi Deuna musikarien zaindariaren eguna ospatzeko Areatzako Bandak, Luis Iruamizaga Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskolak, beste askoren artean, kontzertu eta ekintzak antolatu ditue. Beste alarte batzuk be, barbarako, Arteako Kirol eta Kultur Elkartek zemendia musikalaren antolaketan parte hartu dabe. Estilo askotako musikea egingo da gurean zemendiaren bigarren hamabostaldi honetan. 8. eta 9. orrialdeak



AREATZA

Bostonen egin deusie ebakuntzea Ederreri

Eder Atxutegi 9 orduz egon zan kirofanoan zemendiaren 6an, Bostonen. Areatzako ume honek daukan kardiopatia sendatu ahal dauan ebakuntzea egin eutsan egun horretan Del Nido doktoarearen ekipoak. Gurasoak, ebakuntzea ondo atera zala emon eben jakitera hurrengo egunean euren blogean. Familia Bostonen geratuko da Eder hobeto egon arte.

7. orrialdea



publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

IGTIE

EKONOMIA ALTERNATIBO ETA SOLIDARIOAREN I. AZOKEA

REAS Euskadiren eskutik lehenengo merkadu soziala bultzatzen dago Igitie. Hau da, produkzio, distribuzio, finantziario, zerbitzu eta ikaspen kolektibo oinarri dauan sarea bultzatzen dau, erispide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioen bidez funtzionetan dauana, enpresa eta ekonomia sozial eta solidarioaren alkarte nahiz konsumitzaile individual zein kolektiboak osotua

dagoana.

Merkadu sozialaren sortzeagaz hainbat sektore indartu gura dira; esate baterako, ekonomia solidarioari enpresak, konpromiso sozialeko alkarteak, komertzio justua eta produktu agroekologikoak. Hau dana, sare baten bidez non uritarrak ikusgai izango dauan berez egon badagozan alternatibak baina inoz ez era bateratu baten aurkeztuak. Honegaz komertzio

konbenzionalaz aparteko zirkuitu alternatiboak sortu eta konsumo arduratsua indartuteko.

Herrialdeetako azokak antolatzegaz propaganda eta komunikazio maila arrakastatsua da eta merkadu soziala gizarteratzeaz harago, entidade eta produktoreen arteko alkar ezagutzea bultzatzen dau.

Ildo honetan REAS Euskadik eta Euskadiko merkadu sozialak

Ekonomia Solidarioaren lehenengo Azokea aurkeztuko dabe zemendiaren 16 eta 17an. Bilboko Zabaluneko plazan izango da zapatuan 11:00etatik 22:00etara eta domekan 11:00etatik 15:00etara.

Azokan Euskadiko merkadu soziala osotuten daben enpresa eta erakundeen produktu eta zerbitzuak egongo dira erakusgai eta salgai, hainbat stand informa-

tiboz lagundurik; finantza etikoa, garraio jasangarria, komertzio justua, energia barriztagarriak, produktu agroekologiko eta gertukoak, eraikuntzea, ehungintzea, ostalaritza, garbiketza, eta abar. Igitiko hainbat produktore bebertan izango gara.

Beraz, txoko honetatik konbitea egiten jatzue bertatik pasetako eta apurka-apurka gauzak aldatuz dana aldatzeko.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Zemendiaren 11tik 17ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 18tik 24ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 25etik abenduaren 1era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45eko.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bilkoiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizitatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Iratxe Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Jagi



Ohean lotan itxunda edo leku baten jesarrita egon eta gero zutunduteko egiten dan ekinari jagi esaten deusagu (agoskatuta: yági; yégi, Igorren). Euskera batuan jaiki esaten da. Historian zehar, langileak be haserrea adierazoteko altzau edo jagi egin dira ugazaben aurka. Jagi egin behar da baita ogiaren oreka, kasurako, legamia (lebadurea) bota ostean ogi egin barria apatz edo astin ogi daiten.

ERETXIA

Argi izpi bat

9Oeko hamarkadea zan eta burbuila inmobiliarioa goren mailan egoan. Danok dakigunez, gure politikariak eregitea iradokitzen eben; edozer, baina eregi egitea. Eta holan, burbuila haren ondorioetako bat "merkataritza guneak" eritxoan lekuak eregitea izan zan. Sasoi haretako politikak zentru honen ugaritzearen aldekoak ziran, 1990ean Basaurin, 1994an Barakaldon eta 1998an Getxon sortu ziran holango guneak. Ez eban ardura zenbat metro karra-tu, inguruari kalte egiten eutsen ala ez... ezerk ez eban ardura, eregi egin behar zan. Ondasunak pilatzeko sasoi zan eta dana zan balekoa.

Sano sasoi latza izan zan merkataritza txikiarentzat. Inork ez zituan kontuan izan ordurarte dendari, lagun eta laguntzaile izandako hareek. Inori ez eutsan ardura auzoko ultramarino denda txikiak zarratu ala mertzeriakoak ezin izan baeben euren lokala atzenengo bost urtetan pintau. Merkataritza guneak geunkazan! Gune honeetara joaten ginan danok batera eta han auzunean halako bi gastetan genduan, baina ez eban ardura, dirua baegoan eta.

Eta orduan "krisia" heldu zan, aberats zein pobrearengan, behargin zein enpresariarengan eragina daukan krisi hau. Gure gainean urte lar daroazan krisi hau. Baina... pentsau dozue inoz, noztik igarri dauan krisia merkataritza txikiak? Ba bai jaun-andreok, gitxienez, gainontzekook baino 10 urte gehiago dago krisia sufriduten merkataritza txikia. Batzuek persianea jeitsi behar izan dabe eta beste batzuek krisiaren kontra burrukan jarraituten dabe urte luze-luzeetan. Nekatu ezin eta gelditu ezineko burrukan. Eta honek behartu ditu merkataritza bera berrasmatzera, saltzeako eta zerbitzua emoteko teknika barriak bilatzera, ahalegin guztiak eta gehiago egitera. Batzuek emoitza



LEYRE FERNANDEZ UNAMUNO

Merkataria

onak lortuz, beste batzuek ez hain onak, baina danak saiatu, saiatu egin dira, saiatzen dira eta saiatuko dira.

Bai, jaun-andreok, ahal dogunok hemen jarraituten dogu. Gure bizimodua eta gure seme-alabena ateratzeko. Ez aberatsak izan gura dogulako -askok hori pentsau arren- besteen moduan mahaian egunero jatekoa ipini gura dogulako baino. Eta horregaz gainera laguntza eskatuten deuskunari laguntzea lortzean badogu, eta berba egin gura dauanagaz berba egitea, negar egitea negar egiten dauanagaz eta barre egitea barre egiten dauanagaz... hau da, gizarte hau apur bat humanizau eta gure herriri bizitasuna eta argia emotea, ba horixe egiten jarraituko dogu.

Jakinda ezagutzen nauanak lar optimistea nazala esaten deustana eta kontuan izanda gauzak danontzat dagozala txarto, nik merkataritza txikiarentzat, argi izpi bat ikusten dot, urrun-urrunean baina ikusi ikusten dot. Pentsetan dot, jentea orokorrean konturatzan hasi dala, personak, daukagun dirua baino inportanteagoak garala. Eta eremu honetan, munduko multinazionalik handienak ez deutso merkataritza txikiari irabazten. Ze, hareek ez bezela gu personak, lagunak, laguntzaileak gara... bezeroak eskatzen dauana... harek beti dauka errazoa eta.

Erredakzinoan itzulia

LUMATUTEN

JUAN MANUEL
ETXEBARRIAItargiaren
gerizak-eta

Mundua mundu danetik, gizakia, leku-denpora desbardineta enigma guztiai erantzuna emoten ahalegindu da eta, denporearen podesuz, historian zeharko erantzun asko mito bihurtu jakuz. Aikomen bat: itargiaren gerizak-eta.

Aldi baten, nozik hona ez dakigula, eguzkia eta itargia andra-gizonak ei ziran, eta, Martiko idergibariko gaulendian eguzkia sartzamendira noz helduko dagoala, badinotso eguzkiak itargiari harrokeriaz beterik:

-Hi, ikusten dona mundua, egunean baino egunean ederrago!

-Bai, ikusiko ez joat ba!

-Ba, hori edertasun hori neure argi eta beroari esker dona gero!

-Bai, eta nire neure gaubetako inontzari, -itargiak-, ala, inontzak ez jok ezertarako balio!

Berbok entzun ba eutsazan ba ze, haserretuten jako eguzkia, hartzean dau esku biak bete txingar gori bere barutik eta plast! aurpegi aurpegi bota eutsazan txingarrok itargiari eta

erreunez bete bekokitik okotzera-inoko guztia. Oraintxe eta oraintxe be ezagun dauz hareek erreuneak, aitea baino ez dago itargiari idergi betea danean.

Baina, eguzkia hain ikusten eban mingor, bildursartu eginda egoan itargia eta karran hasi jakon zein eguzkiak behar ez danaren bat egin. Eguzkia orduan atzerik hara gainetu jakon mirua harari letxe eta odolak ur eginik.

Joan eta joan bata bestearen atzetik, ilgora, idergi bete eta ilbera guztian eragoion eguzkiak itargia goatuten.

Itargiaren amasestua eta magalotsa inoz ikusi bakoak ziran eta bere burua holan ikusink badino berekitan: "gesu baten gainetu behar jatak eguzki armin kokorio hori, baia ez jok berea egingo lehenengoan!".

Eguzkia orpoetan ar barik joakon atzerik hara eta hogeita zortzigarren egunean ia ia koiu eginik eukala, ez deutso itargiak bere burua gordetan estarian!

Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak hartu eutsazan eta egunak joan egunak etoni, itargia atzerik hara ikusten eban eta badino bere artean: "burua non gorde jaustan baino ez dok horrek andra galera horrek!".

Orduan, atzera egin ezin eban lez, arin eragoion eragon be itargia barriro atzerik hara harapatzeko, eta, horretarako denodu guztiagaz eragon arren, beste hogeita zortzi egun behar izan ebazan, baina itargiak ostera be bere burua gorde, haren baten.

Gaur be oraindino hor jabilkuz eguzki-itargiok bata bestearen atzean, egunez beroa eta gauzez inontza dariola.

ZERTZEAN



IBON IZA

Gaia jarrita: "Kartzelako bisitea"

1

Bederatzirehun eta larogetahiru zenbat kilometroan kotxearen gatibu jarraitu hor, jiratu segidu segidu baina nora goazen ederto dakigu zure irribarreak dena merezi du.

2

Non dago mon amourra non da omeleta dena da barrotea dena da pareta bi funtzionari handi barreka barreka gorde pistola jauna gorde metraileta nik maitatzen bakarrik ikasi dut eta.

3

Ez dakit zelan beti bardintu gauzkatzen artega nerbioso eta tripak jaten egon gura genuke ahal danik ausarten!! Mila bihotz taupada mila oroitzapen denak urtzen zaizkigu besarkada baten.

4

Zergatik gabiltz azkar haseran berbetan iragana oraina geroa ta bueltan mingaina arin dabil ta garuna ketan berbak ez du balio une batzuetan dena ikusten bait da zure begietan.

5

Kotxea hartu dugu kartzelan etsita... irudiak ditugu sakon itsatsita ia igerrri gabe joan da bisita dena amets bat dala gaude sinetsita aurrean bait zaitugu atzean utzita.

6

Aurrera jarraitzea zen gure leloa... baina gure pausua ez al da geldoa? Ez dut irudikatzen zure txaboloa patioko bazterra kartzela zuloa... guztiak kentzen digu gaudetako loa.

BEGI TXINDORRA

Aurreikusitako moduan, zemendiaren 10ean, Areatzako kaleetatik ibili ziran Maurizia, Leon eta Fasioren marioneta erraldoi egin barriak. Erronkea handia zan, bataz beste eta egunean, tailerlean 15 bat persona inguruk jardutea eskatzen zan eta.

Sara Gutierrez Areatzakoak tailerlean egindakoaren kronikatxo bialdu dau: *Zemendiaren 1a eta 10a bitarteko bederlatzi egun honeetan 30 bat persona aritu da auzolanean. Areatzako 17, Arratiako 3, Bizkaiko hainbat hermitatik etorritako beste 10 bat eta Erriojatik etorritako bikote bat. Gehienak egunero-egunero egon dira beharlean tailerlean eta programautu egoana betez, zemendiaren 10ean kalera ateratzeko prest izan dira Gure Musikari Handiak.*

Bestalde, tailerlean egiten zan lana ikusteko Maurizia, Leon eta Fasioren familiakoak eta antzerkigintza eta musika arloko hainbat eragile be pasau dira bertatik. Arrastiro alboka, triki eta panderoko zuzeneko doinuak alaitu dabe tailerreko giroa.

Baina sortze prozesu osoan lortu dan emoitazik onena, parte hartzaileen artean sortutako konplizidadea, ikasteko gogoa eta taldean egindako lana dogu. Izan be, tailerra zuzendu daben "Les Grandes Personnes" konpainiako Fleur Mary eta Jeromen-en esanetan: "lan hau ezinezkoa da bakarka egitea, txotxongilo erraldoia sortzeako lan-talde gogotsua ezinbestekoa da", eta horretan ezin hobeto ibili dira Areatzan beharlean.

Estreinaldia amaitu ondoren Maurizia, Leon eta Fasioren txotxongiloak txukun eta mimoz batu eta gorde ziran. Esperientzia trinko eta labur hone-tako parte hartzaileak hurrengo personajeak sortzeako gozoz dabiz.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Uribeita Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
kalegora.zerbaki@agoa.es
R.P.S. 21/06

Olaetxe OPTIKA ZENTRUA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gibatua
- Begiko tentsinoa
- Lentillen adaptazinoak
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
T. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ZEANURI

Ander Deuna
jaiak Asterrian

Irati Urien

Asterria (Zeanuri) auzokoak beharrez dabiz urtero lez San Andres jaiak jai konpletoak prestetako gogo eta emozinoagaz. Giro ederra sortuta daukie helburu, horregaitik ez da faltauko desafio, jan-edan zein musikarik. Besteak beste, Unai eta Adolfo gipuzkoarrak joango dira gaua alaituten, aurtengoagaz, hogeita bat urtez segiduan. Kanporako jaka lodia eroatea komenidu bada be txoko barruko beheko suagaz atoa berotuko ei da giroa auzotar baten esanetan. Hementxe egitaraua:

Zemendiak 29, barikua

Jaien hasiera ofiziala. **20:00**etan auzo afaria.

Zemendiak 30, zapatua. Ander Deuna

12:00etan mezea auzuneko ermitan. Ostein, barauskarria eta bertsolariak: Onintza Enbeita eta Beñat Ugartetxea. **18:00**etan herri kirol desafioa: aizkolariak, trontzalariak, ardi moztea eta motozierrea. Ostein, probak: idiak astoen aurka. **20:00**etan erromeria Adolfo eta Unaigaz. **20:30**ean odoloste jana hurreratuten diran guztiatzat. **21:30**ean barriro jantza eta erromeria.

Abenduak 1, domekea

12:00etan mezea auzuneko ermitan. Ostein, koruak: Arantzabela Abesbatza (Gasteiz) eta Andra Mari Ikastola Abesbatza (Zornotza). **18:00**etan jaien amaiera.



ZEBERIO

Zeberio errekearen ertza birlandatu dabe Zubialdeko eskola-umeak

Erredakzioa

Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek jakinarazo dauenez, Zubialde eskola-ume talde batek, Zeberio erreka ertzeko gunen baten bertako landaredia landatu eban zemendiaren 6an.

Santa Kruz auzunean izan zan ekintza eta bertan 32 ikaslek 46 zugatz eta zuhaixka landatu ebezan. Landatutako espezieak sahatzak (*Salix atrocinerea*), elorri zuriak (*Crataegus monogyna*), oilakarak (*Frangula alnus*), lizarzak (*Fraxinus excelsior*), ezkiak



(*Tilia europaeae*), elorri baltzak (*Prunus spinosa*) eta gaztainondoak (*Castanea sativa*) ziran. Ikasleak inguruaren garbiketea be egin eben eta guztira 20 kilo plastiko, lata, edukiontzi eta beste hainbat hondakin bildu zituen.

Erreka ertzaren balio ekologikoa

Parte hartu eben ikasleak inguruarene balio ekologikoa ezagutu eben eta bertako fauna eta floraren garrantzia azaltzen dauan liburuxka jaso eben opari lez. Erreka ertzeko landarediak ibaiertzak babesten ditu eta honeri esker lur-jauzi gitxiago gertatzen dira, ur-goraldiak kontrolau eta ura tenperatura egokian mantenduten da. Faunarentzako elikagaia eta babeslekua be eskeintzen dau erreka ertzeko landarediak.

BEDIA

Domeketan baserriko produktuen merkadua egiteko ordenantzea

Erredakzioa

Bost ordenantza barri egin ditue Bedia, datorren urtean indarrean ipiniko diranak. Ordenantza honek arautu egiten dira etxeko animalien jaubetza eta babes, txosnen funtzionamentua, ortuetako txabolen eraikuntza, diru-laguntzak, eta herriko plazan merkadua bat antolatuteko modua.

Bertako nekazaritza sustatzea eta herriko plazeari "bizitza emotea" dauka helburu atzenengo ordenantza honek. Domeketan merkadua bat egingo dabe herritarrei kalidadezko produktuak hurreratzeko eta Arratian nekazaritzatik bizi diranai euren produktuak saltzeako aukerea emoteko.

Diru laguntzak eskatzeko epe bat egongo da

Diru laguntzak emoteko ez egoan ordenantzarik Bediako Udalean eta jentea urte osoan joaten zala

diru laguntzak eskatzen dino Aitor Sorriketa Bediako alkateak. Hori arautuko dabe eta datorren urteik aurrera epe bat egongo da diru laguntzak eskatzeko. Epe horren barruan egiten diranak bakarrik tramitauko dira.

Etxeko animalien jaubetza arautzen dauan ordenantza "zaharkituta" egoan eta hau ordezkatzeko beste bat egin dabe. Honek dakarren aldaketarik handiena "batez be, zigorrai jagokie. Txakur batek iges egin eta baten bateri ausika egin ezker edo ardiak edo behiak eraso egin ezker, zigorrak ipinteko eta txakur arrikutsua izan leitekela izentatzeko tramiteak hobeto zehaztu dira" dino alkateak.

Txosnak inestetako erispideak be finkatu ditue beste ordenantza baten. Eta gauza bera ortuetako txabolak araututeko. "Aspaldi honetan gero eta jente gehiagok ipinten dau ortua eta jenteak

atxurra eukiteko eta, txabola bat ipini gura dau". Baina indarrean dagoan arauak ez dau holango eraikuntza bat egiten ixten eta "ikusita, gero eta jente gehiago etorten dala eskatuten eta gero eta jente gehiagok txabolea baimen barik egiten dauala" hori araututeko ordenantza egitea ebatzi ebela dino alkateak.



Aitor Sorriketa.

ARRATIA

Gurasoentzako
berbaldia
eta tailerra
Jon Elordui
psikologoaren
eskutik

Erredakzioa

Hilaren 26an, Arratiako Eleizak, aita eta amai seme-alaben hazkuntzan aurkezten jakiezan erronkai erantzuteko, "Familiaren erronkak: familian zoriontsu haziz" izeneko tailerra antolatu dau. Igorreko Andra Mari parrokiako lokaletan izango da 17:00etatik 19:00etara eta familia biderape nerako eleizbarrutiko zentroko Jon Elordui psikologoa izango da moderatzailea eta hizlari nagusia.

Seme eta alabakazko komunikazio estiloak, zelan ezarri arauak eta mugak, zelan kudeatu emozinoak eta zelan heldu gatazkai, izango dira bertan landuko diran gaietako batzuk.

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

umean moda

Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko
eta modernoan
ebagiten dogu

Bixarra egin eta
txukunduten dogu

Elejalde, 20 Rober 630 743 543
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DIRU KONTUTAN
ONDASUN HIGEEZINEN
ASIGURULETAN

Beltza Anza, 3. Floor. 94 671 71 61 - Fax: 94 671 94 61 - 48140 IGORRE

axular
kultur dibertu

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES

Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Pinturas Arratia

Javi Morato
Tel. 628 443 992

AREATZA

Eder Atxutegiri ebakuntzea egin deusie Bostonen kardiopatia osatuteko

Zemendiaren 6an, bederatzi ordutik gora egon zan Eder Atxutegi Areatzako umea kirofanoan, kardiopatia sendatu leikion hil ala biziko ebakuntzea egin eutsien-eta.

Erredakzioa

Ebakuntzeak ondo urten dau eta ebakuntza ostekoa ondo joango dalako esperantzea daukie Ederren gurasoak. Del Nido doktoarek zuzendutako ekipoak egin deusie Bostonen ebakuntzea Areatzakoari.

Ederren ama Josune Berruetak begituri azaldu eutsanaren araber, umea "bihotz berezi" eta anatomia diferente bategaz jaiogan. Jaiogan eta hamazazpi egunetara lehenengo ebakuntza egin eutsien Gurutzetako Ospitalean, eta bi urte eta erdigaz beste bat. Igaz Bostonen biriketako ebakuntzea egin eutsien eta horrerri esker eskoiko birika funtzionetan hasi jakon Ederrerri eta bizi kalidade hobea izan dau aurten umeak. Orain egin deusien ebakuntzeak

kardiopatia sendatzeko helburua dauka.

Ebakuntza oso ondo joan zala emon eben jakitera Ederren aita-amak hurrengo egunean, zemendiaren 7an, blogean. Ebakuntza ostekoa be ondo joatea espero dabe, eta familia Bostonen geratuko da Eder hobeto egon arte.

Ebakuntza hau egiteko behar ziran 67.000 euroak lortzeako, familiak hainbat ekimen ipini ebazan martxan; berbarako, Rosa Hernandez latin eta grekoko katedratikoak, Eder Atxutegiren amamak, egindako *Diez cuentos para Eder* izeneko *Iliadaren* adaptazioa argitaratu; merkaduak antolatu; ikuskizunak eratu eta beste ekimen asko egin ditue, Areatza eta Bizkaia osoaren solidaridadea jaso dabenak.

ZEBERIO

Lur Funtsako lurak eskuratzeko epea zabalik



Erredakzioa

Zeberio Udalak nekazaritza bultzatzeko Lur Funtsa bat sortzeako konpromisoa hartu eban eta horretarako lur jaubeakaz berba egin eta gero, lau bat hektarea ipiniko ditu eskuragarri Udalak nekazaritza proiektu bat daukien herritarrentzat. Lur horreek alokairuan hartzeako proiektuak aurkezteko epea zabalik dago abenduaren 12ra arte.

Urri lehenengoaren 21 eta 22an, "Zeberio bere sustraietatik eraikiz" izeneko, Lehenengo sektoreaz jardunaldiak antolatu ebazan Udalak. Lurraren erabilera eredu barria eta kontsumo eta ekoizpen arduratsua bultzatzeko sortu dabe Lur Funtsa hori.

"Barrikuntza nagusia da, zuzenean larrean ereiten dala, bertan dagozan belar eta landareen gainean, lurra irauli barik". Probako saio honetarako, Gorbeialdek zuzenean ereiteko makina bat alokatu dau eta egin behar izan diran jarduera guztiak kudeatu ditu.

Zuzeneko ereintzaren abantailak

Sistema honek onurak dakar Gorbeialdekoen ustez. Batez be ereintza bizkor eta epe laburrean egiten dalako eta halan, larreak berehala hasten dira ernabarrizten.

Proiektuaren barri eskualdeko ganadutegi guztietara zabalduko asmoz, bisita gidatuak egingo dira esku hartutako lursailletara.

rastea da, hau da, gainean hazi barriak ereitea larrea ernabarriz daiten Gorbeialderen arabera.



Arratiako larre eta basoak.

ARRATIA

Larreak ernabarrizteko, zuzeneko ereintza bultzatzen dabiz Arratia-Nerbioiko abeltzainak

Arratia-Nerbioi eskualdeko abeltzain talde bat hasi da Gorbeialde Landa Garapenerako Elkarteak sustatzen dauan zuzenean ereiteko teknika erabilten.

Erredakzioa

Proiektua eskualdeko lan-taldeetan sortu da, bertoko lehen sektorearen plan estrategikoa garatzeko sortu ziran lan-taldeetan, hain zuzen be.

Joan dan udabarrian, kalidade handiko bazkagaz azienda-produkzio errentagarria lortzeako ikastaroa egin zan Orozkon. Eskualdeko hogeitabat abeltzainek parte hartu eben. Bertan jasotako proposamenen artean, zenbait larretan zuzenean ereiteko teknika hau probetea ebatzi eban Gorbeialdek.

Zuzeneko ereintza, larrea abe-

ARRATIA

Euskera Egunerako motorrak berotzen

Erredakzioa

Euskerearen Nazinoarteko Eguna da abenduaren 3an eta aurreko hamabostaldian hainbat ekitaldi egongo dira gurean arratiarren euskerearen aldeko konpromisoa indartzeko. Ekitaldiak jaiogan eta aldarrira buztartzen dabe. Aikomen, hamabostaldi honetarako antolatuta dagozanak.

Diman hasi ziran hilaren 9an motorrak berotzen. Egun horretan argazkiak atera eutsiezan herriko jenteari "201 baietz" kanpainearen barruko "ekitaldi berezi" bat prestatzeko. Herritarrek ondo erantzun eben eta 201 lagun argazkia egiteko erroke gaingitu zala dinoe Udaleko iturriak. Izan be 201 lagun baino gehiago agertzen dira erretratuotan.

Hamabostaldi honetan, euskerearen inguruko lehenengo eki-

taldia Areatzako Errefrau poteoga izango da hilaren 16an. Hiru egun beranduago, Lemoan, JB Eguzkitza Lemoako euskaltzalearen gaineko berbaldia emongo dabe Nagore Etxebarria eta Ander Manterolak. "Euskaltzale aurrendari eta bidegilea" izan zan lemoaztarra, baina ez da behar beste ezagutzen Arratian.

Hilaren 30ean, zapatuz, Euskerearen Eguna ospatuten eta euskera bera aldarrikatzen hasiko dira Bedian eta Zeberion. Zeberion, "Euskaraz bizi nahi dut" lasterketea egingo dabe aldarri hori kirolaren bidez egiteko. Egurdian, bertso bazkaria egongo da 15:00etan Ermitabarriko Taberna Zaharrean eta bertan Egañak eta Lizasok girotuko dabe jatordua. Bedian, barriz, *Bediako Bizimodua eta ohiturak* liburuaren aurkezpena egingo da, arrastiko seiretan liburutegian.



LEMOA

Izakera integralagoa eukiko dau prozesu parte-hartzaileak

Erredakzioa

Atzen urte biotako parte hartze prozesuari izakera integralagoa emoteko metodologia aldaketa batzuk egingo ditue Lemoan. Holan, 2014ko aurrekontuak diseinetaz gainera, ekintza zehatzak disenetako be erabiliko da parte hartze prozesua. Beste barrikuntza bat be badago, gaika antolatutako batzar sektorialak.

Auzo batzarren planteamentuan aldaketak egon dira eta Udala bera izan da auzuneetara hurreratu dana. "Aurten, Udala auzoetara gerturatu da herritarren kezka eta proposamenak bertatik bertara jasoteko eta Udaletik balorazio "oso positiboa" egin

dabe. 20 auzo batzar egin ditue eta 225 herritar inguruk hartu dabe parte" azaldu dau Lemoako Bilduk prensa ohar baten bidez.

Batzar sektorialak

Ekarpenean eta emoitza aberasgarriak lortzeako, gaika antolatutako batzar sektorialak deitza ebatzi dabe prozesu honetan parte hartzean dabenak. Holan, auzuneetako esparrutik kanpo geratzen diran gai asko landuteko aukerea egongo da. Kirola; Kultura, Aisia eta Gazteak; Ingurumena eta Sozioekonomia dira batzar sektorialok eta dinamizatearen arduradunak alorreko zinegotziak edo teknikariak izango dira herritarrek hartu-emon zuzenean.

ZEZILI DEUNA

Kontzertuak eta entzunaldiak Santa Zeziliaren inguruan

Areatzako Bandak, Luis Iruarrizaga Abesbatzak eta Arratiako Musika Eskolak, beste batzuen artean, hainbat entzunaldi antolatu ditue Zezili Deuna musikarien zaindariaren eguna ospatuteko. Kultura alkarte batzuk be gura izan dabe euren ekarpena egin, eta holan, Arteako Kirol eta Kultur Elkarreak zemendia musikalaren antolaketan parte hartu dau. Kartel honen barruan, Santa Zezilia eguna ospatuteko, hilak 22, hiru ekintza antolatu dabez. Estilo guztietako musikea egongo da gurean hurrengo hamabostaldi honetan.

KORU MUSIKA KONTZERTUAK
Luis Iruarrizaga Abesbatzaren eskutik

Santa Zezilia eguneko Kontzertuak

"Bizitzaren errainetan"

Arteako Umeak
Arratiako Musika Eskolako Abesbatza
Luis Iruarrizaga Abesbatza

ZEMENDIAREN 16a, ZAPATUA ZORTZIRETAN (20:00etan) 16 de NOVIEMBRE, SÁBADO OCHO TARDE (20:00 H.)	ZEMENDIAREN 30a, ZAPATUA ZORTZIRETAN (20:00etan) 30 de NOVIEMBRE, SÁBADO OCHO TARDE (20:00 H.)
ARTEAKO ANDRA MARI ELEIZA	IGORREKO KULTUR ARETOA



Musika estilo
desbardineta
kontzertuak egongo dira
hile honetan

Strauss eta Tchaikowski klasikoan obra ezagunak ez dira faltako emonaldian, ezta modernoagoak be, Cole Porter-en "Cole Porter on Broadway" berbarako.

Abesbatzak

Luis Iruarrizaga Abesbatzakoak, hilaren 16an hasiko dira Santa Zezilia ospatuten, Arteako Andra Mari parrokiari, Arteako umeakaz eta Arratiako Musika Eskolako Abesbatzaz batera emongo daben kantaldiaren bitartez. *Bizitzaren errainetan* izena daukan kontzertu hau entzuteko beste aukera bat be egongo da. Hilaren 30ean izango da Igorreko Kultur Etxean.

Abesbatzak gainera beste kantaldi bat antolatu dau, Vocalia taldeak emongo dauana hilaren 23an Igorreko Kultur Etxean. Basilio Astulezen gidaritzapean kantatuko dau andraz osotutako talde honek. Taldea, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetatik datozen eta abesbatza munduan esperientzia handia daukien 25 kantariz osotuta dago. Taldeak programazino ausartak eta taularitze zainduak izaten ditu eta honek taldea erreferente bihurtu dabe gaur egungo abesbatza giroan. Izan be, nazinoarteko lehiaketetan 20 saririk gora jaso dauz taldeak.

Vocaliak nagusiki *a capella* kantetan dau, hasi sasoi klasikotik eta garaikidera arte, euskal musikea zein nazinoartekoa. Eta erreperitorio handia daukie, batez be XX. eta XXI. gizaldietako konpositoreen lanak batzean dauana. Abesbatza honen lanaren kalidadea, orijinaltasuna eta barrikuntza azpimarratzen dabe kritikariak.

Abesbatzak berbizteko moduak izan daitezke abesbatz desbardin honek. Izan be, Luis Iruarrizaga Abesbatza zahartzen doala eta kantari bila dabilala jakinarazo eban aspaldi ez dala eta Lemoako Korakal be egoera latza bizi dau. Baina erreleboa egon badago Arratian, musikazaletasuna handia dago eta umeak musika eskoletan musikea jotzen eta kantetan ikasten jarraituten

Erredakzioa

Zezili Deuna edo Erromako Zezilia, Erroman jaio zan zemendiaren 22an eta Katanian hil zan 230. urtean gitxi gorabehera. Zemendiaren 22an eleiza katolikoak eta ortodoxoak bere eguna ospatuten dabe. Martiri honen ezaugarriak organoa, lauta eta arrosak dira eta musikarien, olerkarien eta itsuen zaindaria da. Musikarien zaindariaren egunean bertan Artean hainbat ekitaldi izango dira. Arteako eskolan, bertako umeak kantaldia emongo dabe arrastiko hiruretan eta gero, iluntzean jantza ikastaroa egongo da herriko plazan ume eta gazteentzat.

Areatzako Bandak kontzertua eskeiniko dau hurrengo egunean, Areatzako eleizan arrastiko zazpi t'erdietan. Bandak 30 urte beteten dauz aurten eta kontzertu honen bidez ospatuko dabe urteurrena. Hori dala eta, Areatzako Bandak bere ibilbidean izan dituan zuzendari batzuk egongo dira kontzertuan, baktak bere estiloaren ekarpena eginaz. Tomas Araguesen "Agur Jaunak" kantuak emongo deutso hasikerea kontzertuari eta Vivaldi,

begitu
amalia ubide ezberria

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRERO PLAZA
48142 ARTEA (IBORAKU)
Tel. 94 631 72 56

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Airezatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekoirak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

bbk

946 319 008
658 195 091

GALANTA
zure barruko arropa
M. JOSE
barrutik janzen zaitu

Agirre Lehendakaria 23
48140 Igorre
galanta@hotmail.es

www.facebook.com/galanta



Four Friends taldea.

dabe.

Musika Eskolea eta kultura alkarteak

Esandako moduan Arratiako Musika Eskolako Abesbatzak kantaldi bi egingo ditu Artean eta Igorren, baina ez dira Musika Eskolako ikasleak emongo dabean kontzertu bakarrak: hilaren 30ean, Arteako San Migel eleizan kontzertua eskeiniko dabe Musika Eskolakoak. Horrezaz gainera, Arratiatik kalejirak egingo ditue giroa alaitzeko.

Aurten lehenengoz Artean zehazkiaren musika antolatuko dabe herriko alkarteak, Musika Eskolak eta Udalak. Kalez kale Begi Argiak koralkaz batera abesten emon eutsien hasikerea zehazkiaren musikalari Arteakoak.

Kantetan ibili ziran orduan baina musika tresnakaz ikasitakoa be erakutsiko dabe musika eskolako ikasleak. Izan be, kontzertu eta beste ekitaldiez gainera, barne entzunaldiak ditue Areatzan, Artean, Bedian, Diman, Igorren, Lemoan eta Zeberion. Musika klasikoa edota bandan joteko bibolina, klarinetea, txirula, pianoa eta celloa; herri musikea joteko trikia, txistua, eta alboka eta rock taldeetan joteko gitarra eta perkusinoa josten ikasten dabe gazteak.

Rock-a eta beste estilo batzuk

Musika klasikoa eta herri musikea entzuteaz gainera, beste estilotako musikak be girotuko dabaz Arratiako kale, lokal eta tabernak hilean. Holan, Arteako zehazkiaren musikalaren barruan, hilaren 15ean Fermin Muguruzaren *Zuloak* filma ikusteko aukerea dago.

Rock banda baten gaineko fikziozko dokumentala da hau.

Rock eta Blues musikeagaz jarraituteko aukerea ez da hor amaituten. Artean, Four Friends rock eta blues taldeak joko dau herriko plazan eguraldi ona bada, eta ludotekan euria egin ezker. Eta Areatzan be, blues musikea entzuteko aukerea egongo da egun horretan The Quiet Corner tabernan.

Zezipi Deuna, musikarien zaindariaren eguna, hilaren 22an ospatuten da



Badatoz, badatoz...

**Aurten be lapikorik onena egiteko
Merkalabelako txorizo eta odolosteak daukoguz**



Saltxitxak, hanburgesak, baserriko okelea,

untxiak, baserriko arraultzak, artxoak...

MERKALABELA HARATEGIA
Lehendakari Agirre 15 - Igorre
Telefona: 94 673 63 10

AIZKOREA

Urrezko
Aizkolarien
Kopan
hirugarren
Atutxa II.

Aitzol Atutxa.

Irati Urien

Aitzol Atutxa hirugarren gelditu da aurtengo Urrezko Aizkolarien Kopan. Finala hilaren 2an izan zan Bilboko Esperanza frontoian. Hiru aizkolariek hamar korte egiteko beharrean ibili ostean, holan gelditu zan klasifikazioa: Floren Nazabal (22'09"), Juan Jose Lpz. Azpilikueta (25'13") eta Aitzol Atutxa II.a (27'12"). Dimoztarrak bere twitter kontuan adierazo ebanaren arabera, saio haretan sentsazio txarrak euki ebazan; izan be, garritik eskas egoan eta egurrakaz be ez eban suerte handiegirik euki.

ERRUGBIA

Hasikerea ez
hain ona

Ainhoa Duñabeitia

Zekorrek ez dabe denporaldia eurek gura moduan hasi. Seigarren postuan dagoz sailkapenean; honezkero hiru partidu jokatu dabez, horreetatik bat irabazi, beste bat bardindu eta bestea galdu egin dabe. Atzen hau, hilaren 2an jokatu eben Donostian, Atletico San Sebastianen kontra. Neurketa nahiko eskasa izan zan arratiarrak egin ebena. Entsegu bakarra lortu eben partidu osoan zehar; donostiarrak barriz, bost.

Norgehiagokako azken emoitzea, Atletico San Sebastian 40, Arratiko Zekorrek 5. Hurrengo partidua, hilaren 23an izango dabe, aste biko deskantsua dabe eta.

PELOTEA

Pelotea eta palea bizi-bizirik Zeanurin

Irati Urien

Berrogeita hamar urtetik gora ditu Zeanuriko Eskupilota Elkartek. Hogeita hemeretzi pelotari dagoz egun, horreetatik bat neskea. Neska eta mutil honeen entrenadorea Juan Mari Arrizabalaga da. Esperientziadun gizona, ezaguna da maisu zein entrenadore izateagaitik Arratian. Igorren hogeit urte daroaz pelotariak entrenetan, Zeanurin laugarrena orain. Herri txikia izateko pelotari asko dagoala eta ondorioz Zeanuriko egoera ona dala adierazo deuto Arrizabalagak BEGURI. Mailari jagokenean, dezentea dala esan dau. Umeak ondo pasetara eta ikastera joaten dira, estudioak itxi barik. Arrizabalagak dinoanez, "inportanteena ikasketak dira, hau joko bat da". Denporeagaz gazte batzuk itxi egiten dabe, beste asko animau eta hasi be bai. Halanda be, 15-16 urte ingurugaz iteko joerea dagoala nabarmendu dau entrenadoreak. Arrazoa zein dan galdetu orduan "ez dakit, pelotak gogoragoak diralako edo neska laguna topau dabelako", erantzun dau umorez. Entrenamentuak edadeka egiten ditue. Txikien kasuan talde bitan ipinten ditu asko dagozalako. Honeek egun bitan daukie, 16:45etik 17:30era ibiltzen dira frontoi aurrean eta gero atzekaldean jarraituten dabe. Martitzen eta eguenetan infantilak, kadeteak eta nagusiak egoten dira. Nagusiak ez ditu Juan Marik entrenetan, euren kontura egiten dituez entrenamentuok. Eguazten eta



Joko Alaiko ume eta gazteak Juan Mari Arrizabalaga entrenatzaileagaz.

barikuan beste honeen txandea izaten da: txikiak, prebenjaminak, benjaminak eta alebinak.

2012-2013ko Zeanuriko Eskupilota Elkarteko kirol balantzea



Palariak Zeanuriko frontoian.

sano ona izan da. Sarritan suertau dira txapeldun edo txapeldunorde mutikoak, jokatu dabezan txapelketetan; eta nesken kasuan, Kattalin Burgoak Nesken arteko Euskadiko Txapelketea irabazi eban barbarako.

Palan gogor neskek

Bigarren urte da pala eskolea dagoala Zeanurin. Nesken kopurua eta euren gogoak gorantza doaz agiri-agirian. Momentu honetan hamabi inguru dabiz. Bediatik 32 urteko andrazko batek etorri gura dau, eta Dimako gaztetxo bik be beste horrenbeste. Luis Angel Erkiaga Joko Alai Kirol Elkarteko presidentearen esanetan, "esan genduan ez genduala limiterik ipiniko

edadean; apuntau gure dauanak, aurrera". Jakina da Zeanurin beti egon dala tradizio handia pelotan ibiltzeko. Erkiagak azaldu dauanez, horretan apuntetan ziran neskek pelota gogorragaz jokatu-tea toketan jakienean itxi egiten eben, askotan orokorrean kirola egiteari itxiaz. Orain dala hiru urte inguru federazioak nesken palea atera eban, eta aurreko arazoan urtenbidea izan leikelakoan duda barik neska aukera bat emotea ebatzi eben Zeanurin. Sano pozik dagoz ebatzi hori ekarten dabilen emoitza. "Gustura ikusten jakie, gogotsu. Gainera, aurten hasi diran neska gazteak eredu dira gaztetxoentzako", adierazo dau Joko Alaiko presidentek.

FUTBOLA

Arratia B
bide onetik

Ainhoa Duñabeitia

Arratiako neskek, hilaren 3an jokatu eben norgehiagokan hiru puntuak lortu ebazan, Elgoibarraren aurka 0-3 nagusitu ondoren. Etxean jokatu eben hurrengo neurketan, puntuak Eibarrek eroan ebazan, arratiarrei gol bi egin eta gero. Hilaren 16an Beasainen aurka jokatu dabe lgartzako futbol zelaian. 9. dira sailkapenean neska arratiarrak.

Mutilen lehen taldeak, hilaren 2an Urdulizen kontra jokatu eban partiduan ez eban emoitza onik atera, bi eta huts galdu eban eta. Hurrengo astegienean, 9an, etxean jokatu eben Abantoren

kontra. Neurketako azken emoitzea banako bardinketea izan zan. Hurrengo norgehiagokoa hilaren 17an izango da Otxarkoagaren aurka Bilbon. 7. dira sailkapenean.

Arratia B taldea emoitza onak ateratzen

Gizonezkoen futboleko bigarren taldeak emoitza onak izan ditu azken jardunaldi bietan. Hilaren 2an etxean jokatu eben neurketea 3 eta 1 irabazi eben Loiu Bren kontra. Hurrengo norgehiagokoa hilaren 10ean izan eben, La Salleren aurka hain zuzen be. Galtean hasi eben partidua, baina atzenean aurrera atera ahal izan eben arratiarrak neurketea, La Salle 1 Arratia B 4 emoitzeagaz. 7. jardunaldia etxean jokatu dabe Laramendi Ikastolaren kontra. 6. dago sailkapenean Arratiako gizonen bigarren taldea.

ZIKLO-KROSA

Mazairak, Alzolak eta
Quintanillak txapel bana

Erredakzioa

Hasi da ziklo-kros denporaldia eta Opel Ibaiganeko Jose Antonio Mazairak irabazi eban Karrantzako proba, master 50eko kategorian. Naia Alzola dimoztarrak eta Manu Quintanilla igorretarrak be lortu dabez lehenengo txapelak Arbulo eta Elorrioko lasterketan hurrengo hurrengo.

Zemendiaren 9 eta 10eko aste-goiena oparoa izan zan Arratiako ziklo-kroslerientzat. Izan be, txapel bi irabazi ebazan eta beste hiru ziklistak podium-a lortu eben. Naia Alzolak Arbulo lasterketea irabazi eban hilaren 9an, elite mailan. Sano lasterketa arina izan zan, landak siku-siku egozan eta. Beste

arratiar bi igon ziran podium-era, Master 30 kategorian, Mikel Epalza lemoaztarra eta 23 urte artekoen kategorian Jon Mikel Kareaga.

Zapato-domeka honetako bigarren txapela Manu Quintanillak lortu eban Elorion Master 30 kategorian. Lupetz handia egoan zirkuituan eta ziklista asko jausi ziran. Denporaldiko bere lehenengo txapela izan arren, Karrantzan be igon zan podium-era igorretarra, urri bigarrenaren 27an, helmugara bigarren heldu zan eta.

Jose Antonio Mazairak bere kategoriako hirugarren postuagaz konformau behar izan zan Elorion, baina denporaldiko lehen lasterketea be irabazi eban Opel Ibaiganekoak, Karrantzakoa, hain zuzen be.

MENDIA

Formato txikiagoko Mendi Amesgarriak

Ganzabalek antolatutako Mendi Amesgarriak formato txikiagoan datoz aurten. Izan be, lau saio izan beharrea bi izango dira.



Erredakzioa

Hilaren 26 eta 29an, Igorreko Lasarte Aretoan mendi espedizio ikusgarrienen lekukotasuna emoten daben filmak ikusteko aukerea izango da. Igazko Mendi Film Festival-eko pelikula saridunak, Migeltxo Molinaren *Pura Vida* dokumentala eta Alex Txikonen espedizioa kontetan dauan *Next Stop Greenland* izango dira tartean.

Igazko Mendi Film Festival-eko pelikula labur onenak ikusteko aukerea dago zehazkiaren 26an Igorren. Baita aurtengo Mendi Film Festival-eko aurkezpen bideoa be. *Unicorn sashimi*, zinematografia onenari saria jaso eban, *Race for the nose*, *Origins: Obe and Ashima* saria jaso eban filma eta *Erhard Loretan: respirer l'odeur du ciel* festibaleko sari nagusia jaso eban pelikulea izango dira martitzeneko saioan erakutsiko diranak.

Hilaren 29an, barikuz, Iñaki Otxoa de Olzaren bizitza eta ha-

salbetako eratutako espedizioa kontetan dauan dokumentala ikusi eta Migeltxo Molina zuzendariagaz berba egin ahal izango dabe Lasarte Aretora hurreraten diranak.

Urtero lez, Alex Txikon lemoaz-tarraren espedizinoen bat ikusteko aukerea ez da faltako eta egun horretan Lara Izagirrek zuzendutako *Next Stop Greenland* pantailaratuko dabe. Film honek hainbat sari jaso ditu kirol zinemaldietan eta mendizale batzuk, tartean Txikon, *Ulamertorsuaq* mendia eskalau eta base jauzia egin ebenekoa kontetan dau.

Bazkideen proiektzioak

Ganzabal Mendi Taldeko bazkideak be, eurak egindako mendiazag lotutako ikusentzunezkoak erakusteko aukerea izango dabe. Lau saio egongo dira aurten, hilaren 20an, 27an, abenduaren 4an eta 10ean, arrastiko 20:00etan, Lemoako Jubiladu Etxeko goiko aretoan.

KIROL ASTEA

Kirola bultzatzeko astea Lemoan

Erredakzioa

Herritarren artean ariketa fisikoa bultzatzeko asmoz, aurten bigarren urtez, zehazkiaren 25etik abenduaren 1era, Kirol Astea antolatu dabe Lemoan. Aste osoan kirolaren garrantzia aztertuko dabe berbaldeen bidez eta berau sustatzeko hainbat ekimen dagoz Udala eta herriko alkartearen artean prestatutako egitarauan. Tartean, zapatu osoan jokatu dan Euskal Herriko *One wall* Txapelketea.

Zemendiak 25, astelehena

19:00etan, Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatutako baldia, "Oinarriko futbolaren garrantzia". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Zemendiak 27, eguaztena

15:30ean, Athletic-eko futbolari bi eta pelotari profesional biren bisitza eskolan. Lemoako Harrobi Futbol Klubak eta Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta.


20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak

antolatuta, bazkideen proiektzioak eta argazki erakusketea Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Zemendiak 28, eguena

09:15ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, eskolako ikasleentzako mendi urtekerea.

19:00etan, Udalak antolatuta, Aurrekontu parte-hartzaileak. Batzar Sektoriala: kirola. Jubiladu



One wall-ean jokatzen diren frontoiak.

Etxeko goiko aretoan.

Zemendiak 29, barikua

JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak antolatuta, goizean Munduko Jolasak eskolan.

12:00etan, Udalak antolatuta, Ariketa Fisikoa egiteko jarraibideak Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Zemendiak 30, zapatua

10:00etatik 12:00etara, Lemoako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, "Gymkana" ziklistea eskolan.

10:00etatik 19:00etara, Euskal Herriko *One wall* Txapelketea frontoian. Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta.

16:00etatik 17:30era, *Aerobithon* saioa kiroldegian.

17:00etatik 19:00etara, *Spinning* maratona kiroldegian.

Abenduak 1, domekea

13:00etan, Mendieta Herri Kirol Taldeak antolatuta, herri kirol erakusketea Elizondon.

Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deutzazu.

35€, 55€ edo 75 Euroren truke

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxa. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.

ANTZERKIA


**Baso sorgindua
umeentzako
antzerkia
Igorren**

Erredakzioa

Patata Tropikala antzerki taldeak Igorreko Lasarte Aretora taularatuko dau *Baso sorgindua* 3 urtetik gorako umeentzako antzezlan hila- ren 15ean. *Baso sorgindua* Nino

gaztearen biaje fantastikoa kontetan dau. Antzerki lan hau, Fernando Trias eta Alex Rovirak 2004an idatzitako *La Buena Suerte* liburuan oinarrituta dago.

Sorgin gaizto batek gobernatuko erresuma baten gertatzen da kontakizuna. Sorginak ugeltz bihurtzen ditu neskek eta sekulako gaiztakeriak egiten ditu. Egun baten Merlin Aztiak eginkizun bat agintzen deutso Ninori: mugabako zortearen hirusta topetea. Eginkizun hori dala eta, Nino abentura handitan sartuko da eta personaje fantastiko eta maitagarriak ezagutuko ditu.



Baso sorgindua.

LEHIAKETE

Areatzako I. Errefrau Poteoa

Erredakzioa

Areatzako Euskera Batzordekoak erronkea planteau dabe. "Badakigu Areatzako herritarrek ez garala bat be bertsozaleak, areatzazarrak euskeraz berba egiteko be ez dogu zaletasun handirik, eta hori aldatzea da, hain zuzen be, gure erronka. Jentearen konzientzia faltan eragin eta gaztelerarako joera hori aldatzen saiatzen gara" dinoe batzordekoak. Euskereagaz ondo pasau eta gozatu ahal dala ikusarazo gura dabe, eta hori lortu guran antolatu dabe Areatzako I. Errefrau Poteoa hilaren 16an arrastiko 18:00etan. Areatzako Hesperia bainuetxean hasiko da lehiaketea.

Izen bitxia daukan lehiaketa honen helburua ume, gazte, heldu zein nagusiak bertso, kanta eta



errefrauk bidelagun dabela arrasti pasa dibertigarri bat egitea da. Taldeen arteko lehiaketa bat izango da, talde bakotzak, 3 lagun. Taldeak aurretiaz jaso dauan esaera zahar zerrenda bat ikasi ondoren, partaideak tabernaz taberna joango dira euskal kantuz lagunduta. Taberna bakotxean, geldiune bat egingo dabe eta bertan, Arkaitz

Estiballes eta Ibon Ajuaria bertsolariak bertso bana botako dabe esaera zahar baten parodia eginez. Talde bakotxaren lana izango da bertsolariak botatuko bertsoak zein esaera zaharri egiten deusan erreferentzia asmatzea. Beraz, taberna bakotxean bertso bi entzungo dabez eta entzundakoaren arabera, zein esaera erabiliko leuki en egoera horretan asmatu beharko dabe. Amaituteko, "zelan ez, jatekoa egongo da", txorizoak eta urdaia burduntzietan jarri eta erre bitartean, euskal kantuak abestu eta jantzatzeo aukera izango dabe Taberna Ibiltarikoen eskutik.

Zemendiako zapatu arrasti baterako plan interesgarria antolatu dabelakoan ahalik eta jente gehienera heldu gura dabe. "Aitiamamak barra-barra erabilten zituen esaera zaharrak gogoratu, bertsoai bildurra kendu, eta, batez be, euskereagaz eta euskeraz jolastu gura dogu". Zapatukoaren ostetik etorriko diran beste ekintza askoren lehenengo izango da.

IRAKURLE-KLUBA

Uxue Alberdi Bediako Irakurle Klubean

Erredakzioa

Uxue Alberdi izango da Bediako Irakurle Klubean hilaren 20an, *Euli-Giro* bere azken liburuaren gainean irakurleakaz eta bertara hurreraten diranakaz berba egiteko.

Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) idazlea eta bertsolaria da eta hiru narrazio liburu kaleratu ditu:

Igartza saria jaso eban *Aulki bat elurretan* (2007, Elkar), *Aulki jokoa* (2009, Elkar) eta *Euli-giro* (2013, Susa). Haur eta gazte literaturako beste liburu bat be kaleratu dau aurten, *Txikitzen zaretenean* (Pamiela).

Euli-giro liburuan bederlatzi kontakizun batzean dira. Sano ipuin diferenteak dira, baina guztietan atmosferak pisu handia dauka eta hortik liburuaren izenburua. Sensazioetatik abiatuta idatzitako ipuinak dirala azaldu dau egileak behin baino gehiagotan. Ipuinok irakurtean ia sensazio horreek sentidu dabezan Arratiako irakurleak komentauko dabe Irakurle Klubeko hurrengo saio honetan.



Euli-giro liburuaren azala.

ZOZKETA
arratiako merkatarien elkarlea

Zoaz eta erlaxatu AMErekin !!!

Hiru egun zoraqarri	Hiru egun ahaztezinak	Birentzako txokoa
Bikote momentua	Hiru egun alkar maitatzeko	Birentzako SPA

AZAROAREN 27tik ABENDUAREN 8ra ZURE EROSKETA TIKETAREKIN

Zozketa - Abenduaren 10ean - 21:00etan - Jubilatuen txokoa

IGORREN EROSI

OPEL

Ibaigane, s. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Teln: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

SESOREAK
basola Emaldi
KALITZAZKOAK

Abokatuak

620. 57.86.04
aslerabasola@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

ARA MOTZ
Lanegun O Jartzen!

Barrio Ugarena 2 et. 48911 Dima - Bizkaia
www.aramotz.com

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre
Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

DOKUMENTALA

Hamahiru egunetan, *baSo aHazuak* finantzietako diruaren % 58 lortu dabe

Erredakzioa

BaSo aHazuak dokumentala finantzietako kanpainak 13 egun eriozanean, 69 finantziakideri esker, aurrekontuaren % 58 lortuta egoala azaldu eutsen BEGITURI Ibai Pujana eta Iker Yurrebaso dokumentalaren egileak. Goteo plataformea 40 egunez, hilaren 30era arte, erabili daiek arratiarrak euren proiektuentzako dirua bartzeko. Erantzuna ezin hobea izan dabe, izan be, denpora horren he-renean, behar daben erdia baino gehiago lortu dabe.

Diru guztia lortu ezker, azpitituluak ipini, DVDak sortu eta dokumentala biribiltzeko falta ja-

kiena egingo dabela dinoe egileak. Dokumentalaren ekoizpenean lagundu gura dabenak goteo plataformaren helbide honetan egin leikie beren ekarpena: <http://goteo.org/project/baso-ahazuak>.

Papelezko bonoak be bai

Eragiketa telematikoak ez dirala jente guztiarentzat errezak jakinda, papelezko laguntza bonoak be sortu dabez. Bost euroko laguntzea emon ezker, dokumentalaren kreditu tituluetan eskertza agertuko da, hamabost emoten ezker estreinaldira konbidauko dabe, eta holan 300 euroko bonoagaz "kolaboratzaile plus" izateko aukerea izan arte.



BaSo aHazuak dokumentaleko irudia.

MUSIKEA

Eskean Kristö Banden Lehiako finalean

Erredakzioa

Eskean Kristö Arratiako taldea Azkue Fundazioak antolatzen dauan Banden Lehiako txapelketako finalerako sailkatu da. Lau talde pasau dira: interneten boto gehien izan dabezan bi eta epaimahaiak aukeratu dituan beste bi. Eskean Kristö epaimahaiak aukeratutakoen artean egon da, Urgatz talde bermeotarragaz batera. Finala Bilboko Bilborock aretoan jokatu da zehazkiaren 29an. Egun horretan lau taldeak zuzenean joko dabe, eta 20 minutuko tartea izango dau bakotzak bere proposamena defendatzeko. Ebatziaren % 50a epaimahaiaren esku egongo da eta beste % 50a publikoaren esku. Hori dala eta, taldeak arratiarrak guztiak Bilborockera joateko deia zabaldu gura deutse, "euren alde egiteko eta zaratea aterateko".

EH Sona Festibala

Zehazkiaren 23an, Banden Lehiako finala baino astebete lehenago, Eskean Kristök Bartzelonan joko dau kontzertua Gatibugaz batera, Razzmatazz areto famaduan, EH Sona festibalaren barruan. Izan be, taldeak Bartzelonako Euskal Etxeak antolatutako EH Sona lehiaketea irabazi eban. Bertara joatera be animatu gura dabez arratiarrak guztiak.

MUSIKEA

Zemendia musikala antolatu dabe Artean



Fermin Muguruzaren *Zuloak* filma.

Erredakzioa

Arteko hainbat alkarteren artean zemendia musikaz blaitzea ebatzi eben eta aurten lehenengoz Arteko Azaro Musikala antolatu dabe. "Herriko jenteak parte hartzeako ekintza bateratua egin gura genduan eta musika izan zan atxakia" azaldu deutso BEGITURI Iñigo Ramos AKKT-ko partaideak. Arratiako Musika Eskola, Arteko Udala, AKKT, Arteko Eskola Publikoa, Gure Borda Elkarte eta Arteko Guraso Elkarte dira ekitaldi honek antolatu dabezanak.

Zemendia hasteaz batera izan zan lehenengo ekitaldia eta Artekoak kale kale ibili ziran Begi Argiak abesbatzakoakaz batera kantuan. Oraindino ekitaldi asko geratzen dira: Fermin Muguruzak zuzendutako *Zuloak* fikzinozko dokumentala, rock kontzertua Four Friends taldeagaz, jantza ikastaroa herriko plazan eta Arteko umeen kantaldiak, barbarako.

Zemendiak 15, barikua

19:00etan, ludotekan *Zuloak* Fermin Muguruzak zuzendutako fikzinozko dokumentala.

21:00etan, herriko plazan edo ludotekan kontzertua: Four Friends.

Zemendiak 16, zapatua

20:00etan, Andra Mari parrokiaren, Luis Iruarizaga Abesbatza, Musika Eskolako abesbatza eta Arteko umeen kontzertua.

Zemendiak 22, barikua

15:00etan, *Musika Arteko eskolan ere bai! Hurbildu zaitez!* izeneko ikuskizuna. Eskolan.

19:00etan, ume eta gazteentzat jantza ikastaroa plazan.

20:00etan, *Izarren hautsa* dokumentala, Arteko argazkiak "Artea eta Arteko biztanleak 50. hamarkadan" ludotekan.

Zemendiak 30, zapatua

18:00etan, kale kale musika jotzen Musika Eskolako ikasleakaz.

DUNBA

Gaztaina Eguna

Dimako Ugarana eskolako 6. mailako ikasleak

Kaixo gure irakurle:

Gaur kontauko deusugu zelan ospatu genduan "Gaztaina Eguna" pasa dan astean. Eskolatik abiatu ginan Bargondia auzunantz, kaminotik tipi-tapa eta errepidetik ibiltea arriskutsua denez ikasle nagusiok txikiak lagundu genduzan. Han Iturriondobeiti baserrian, ikasle bik, bertoko anaia biri Baltzolako kobetan Sugoiaz gertatutakoa kontau euskuen. Badakizue kondaira hau?

Anaia biak ardiakaz ebizala edurra mara-mara hasi zan, Baltzolako koban sartu ziran babes bila eta Sugoia azaldu jakien. Sugoia suge erraldoia da, anakonda baino handiagoa... Gehiago jakin

gura badozu topatu kondairaren amaiera.

Azalpena entzun eta gero bideari jarraitu geuntsan. Bargondian lihoa landutako putzu bereziak dagoz, osinetak. Liho landarea, antxina, erropea egiteko erabilten zan eta prozesua luzea eta konplikaua zan.

Aurrerago, gaztainondo baten ondoan ikasle batzuk, euskaldunentzako gaztainak izan daben garrantziaz berba egin eben. Negu gorrian janariaren faltea eukiten eben eta gaztainak gosea kentzean eutseen.

Udagoienean umeak eta andrak gaztainak batzean joaten ziran, txubelazua izeneko egurrezko pintzeagaz, eta burdian kirikiñohesira eroaten zituen eta adarrez eta hostoz tapetan zituen basoko



Gaztaina Eguna.

animaliak jan ez eiezan. Gure kulturaren be gaztaineren presentzia topetan dogu, "Hator hator mutil etxera..." abestian esaterako.

Baltzolako San Lontxo basilikaren ondoan hamaiketako egin eta gero Abaroa koba barrutik zeharkatu genduan.

Horren ostean, Baltzola kobara sartu ginan eta jentea eskaletan

ikusitako genduan, gogoratu koba honetan agertu zala Sugoia.

Han ikaskide bik kontau euskuen zelan sortu ziran koba biak eta ondoan dagoan Jentilzubi izeneko harrizko zubi erraldoia.

Aurrerago egin genduan eta Axlor kobazuloaren agoa ikusi genduan. Koba horretan, orain dala 35.000 urte Neandertalak bizi ziran eta



gizaki honen aztarnategi bakarra da Bizkaian.

Gibiltar baserri heldu ginan eta bertoko andrak lamiakaz izan zituan arazoak kontau euskuezan.

Gibiltartik Zamakola errotera abiatu ginan. Errota honek arto eta gari uruna ekoizten eban eta 23 baserri be argi indarra emoten eutsan.

Azkenean Indusiko San Fraisku ermitearen ondoan bazkaldu eta gero gaztainak erre eta jan egin genduzan.

Arrastian bueltea, oinez be eskolaraino. Oso esperientzia ona izan zan benetan eta azalpenak interesgarriak izan ziran.

AGENDEA

ZEMENDIAK 15

ARTEA

19:00etan, *Zuloak* dokumentala ludotekan.

21:00etan, Four Friends-en kontzertua.

IGORRE

17:30ean, Patata Tropikala taldeak *Baso sorgindua* umeentzako antzerkia Lasarte Aretan.

17:30ean, Emakumeen arteko II. Topaketa interkulturala. Kultur Etxean.

LEMOA

20:00etan antzerkia Karbie Gaztearen 9 *semanas y 1/2*.

ZEANURI

19:00etan, Osakidetzako Txus Ziarustaren berbaldia "Desbardintasunaren ondorioak osasunean". Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 16

ARTEA

19:00etan, Andra Mari parrokiari, Luis Iruarizaga, Musika Eskolea eta Arteako umeen kontzertua.

AREATZA

10:00etan, Parkeak antolatuta, Jon Etxebarriaren ardi-ustipenari bisita.

18:00etan, I. Errefraua Poteoa Hesperiatik hasita.

22:30ean Mojito jaia Bixer tabernan.

IGORRE

22:00etan, zinea *15 años y un día*.

ZEBERIO

18:30ean, Austarik antolatuta, Txaborro magoa.

ZEMENDIAK 17

ARTEA

17:30ean, *Mujeres supervivientes* dokumentala.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Percy Jackson y el mar de los monstruos*. 19:30ean, zinea *15 años y un día* Lasarte Aretan.

LEMOA

Ganzabalek antolatuta, goizeko urtekerea Arratitak.

ZEMENDIAK 19

LEMOA

19:00etan, Nagore Etxebarria eta Ander Manterolaren berbaldia "JB Eguzkitza, Lemoako euskaltzale aurrendari eta bidetza". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ZEMENDIAK 20

ARANTZAZU

18:00etan, Garbiñe Mendizabalek berbaldia "Berdintasuna krisian dago?". Erabilera anitzeko aretoan.

AREATZA

18:00etan, AKKBk antolatuta, Bilboko Arte Ederretako Museora urtekerea. "Regoyosen koadroak Inaki Elexperen begietatik".

BEDIA

19:00etan, Irakurle Klubean Uxue Alberdi. *Euli-Giro* liburuaren gainean berba egiteko. Liburutegian.

LEMOA

20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideen proiektzioak. Andoni Linaza, *Alpeak: Monterrosa Aostatik*. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ZEMENDIAK 21

IGORRE

20:00etan, zine kluba, *Life Aquatic*.

LEMOA

19:00etan, aurrekontuetako batzar sektoriala: kultura/aisialdia/gazteria. Jubiladuen Etxean, goiko aretoan.

ZEMENDIAK 22

ARTEA

15:00etan, *Musika Arteko eskolan ere bai! Hurbildu zaitez!* Izeneko ikuskizuna. Eskolan.

19:00etan, umeentzat eta gazteentzat jantza ikastaroa herriko plazan. 20:00etan, *Izarren hautsa* dokumentala, Arteko argazkiak "Artea eta Arteko biztanleak 50. hamarkadan" ludotekan.

BEDIA

19:00etan, Indarkeriari aurre egiten. Puntu ez seguruaren mapea. Liburutegian.

IGORRE

19:00etan, Berbaldia Igorre Bizirik-ek antolatuta "Auzo-konposta, Larrabatzuko eredu". 18tik-21era argazki erakusketara Jubiladuenean *Hondakin organikoaren kudeaketa*.

LEMOA

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, *Stretching* saioa. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ZEMENDIAK 23

AREATZA

19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua Eleizan.

IGORRE

20:00etan, Vocalia abesbatza. Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 24

ARRATIA

Marxa morea abortatzeko eskubidearen alde.

11:00etan martxarean hasikorea Zeanuriri eta Bedian. 13:00etan, martxarean amaiera Diman.

Martxari harrera, bertsolariak, kantak.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Justin y la espada del valor*. 19:30ean, zinea *Las brujas de Zugarramurdi*.

LEMOA

Ganzabalek antolatuta, mendi urtekerea Lagran-Laguardia GR38 (ardoaren eta arrainaren bidea) 2. etapea. Ostein bisiteta eta bazkaria upeltegian.

ZEMENDIAK 25

BEDIA

17:00etatik 20:00etara abenduaren 16ra arte, Gabonetako bartel lehiaketan parte hartu daben marrazkien erakusketara liburutegian.



Blues musikea The Quiet Corner-en

Zemendia blues musikearen hilea da Areatzako The Quiet Corner tabernan eta hilaren 15ean, 22:00etan, Vallecas-eko (Madril) Fede Aguado eta Osi Martinez egongo dira euren musikea jotzen. Bikote honetan Fede Aguadok abotsa eta gitarra ipinten dauz eta Osi Martinezek ago-soinua. Blues-a gaztelaniaz egiten dauan bikoterik ezagunetakoa da eta disko bi daukiez, *Con el corazón en la mano* eta *Dos balas perdidas*.

IGORRE

19:00etan, indarkeria sexistaren kontrako konzentrazioa. Kultur Etxe ondoan.

LEMOA

17:30ean, Miren Urresti AUMko Bardintasun teknikariaren berbaldia "Umeentzako ipuinak sexistak dira?". Liburutegian.

19:00etan, Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatutako berbaldia "Oinarriko futbolaren garrantzia". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ZEBERIO

14:30etik 16:30era aste osoan, "Haur eta umeen Zeberio".

ZEMENDIAK 26

AREATZA

19:00etan, Beatriz Azpiri kazetariaren berbaldia "Feminismoaren eronkak". Udaltxean, Emakumeen Foroko Gelan.

BEDIA

17:00etan, tailerra: udagoieneko apaingariak.

IGORRE

19:30ean, Mendi Amesgariak: igazko Mendi Film Festival-eko metraje laburreko lau film.

ZEMENDIAK 27

LEMOA

15:30ean, Athletic-eko futbolari bi eta pelotari profesional biren bisiteta eskolan. 20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, bazkideen proiektzioak. Ismene Leiza *Madeira irla ezezaguna* Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ZEMENDIAK 28

AREATZA

19:30ean, AKKB-k antolatuta, Aitor Bergararen berbaldia didaktikoa "Psuak salgai Marten". Udaltxean.

LEMOA

19:00etan, aurrekontuetako batzar sektoriala: kirola.

Jubiladu Etxeko goiko aretoan.

ZEMENDIAK 29

BEDIA

18:00etan, Gabon bartelen lehiaketako sariak banatzea liburutegian.

LEMOA

JB Eguzkitza Meabe ikastetxeak antolatuta, goizean Munduko Jolasak eskolan. 12:00etan, Udaltxean antolatuta, Ariketa Fisikoa egiteko jarraibideak Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

18:00etan, Beldur Bank lehiaketaren sari banaketara. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

IGORRE

19:30ean, Mendi Amesgariak: *Pura Vida* eta *Next Stop Greenland* dokumentalak Lasarte Aretan.

ZEBERIO

19:00etan, Zeberioako basoetan egindako ikerketaren barri emongo da berbaldi batez. Plazako ermitan.

ZEMENDIAK 30

AREATZA

08:30ean, mendi urtekerea londegorta-Aldamin-Egriñao-Araba-londegorta. Parkearen.

16:00etan, Pelukeria tailerra Rosana Pedrosaren eskutik. Udaltxeko ispilu gelan. AKKBk antolatuta

ARTEA

18:00etan, Arratia Musika Eskolako ikasleen ekitaldia San Migel eleizan. Ostein kalejirean.

BEDIA

18:00etan, *Bedia: bizimodua eta ohiturak* liburuaren aurkezpena liburutegian.

IGORRE

20:00etan, *Bizitzaren errinetan* kontzertua. Arteko Urteak, Arratia Musika Eskolako Abesbatza eta Luis Iruarizaga Abesbatza.

ZEBERIO

Goizean, "Euskaraz bizi nahi dut" lasterketa. 15:00etan Bertso-bazkaria. Bertsolariak: Egaña eta Lizaso.

ABENDUAK 1

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Zipi y Zape*. 19:30ean, zinea *Antes del anochecer* Lasarte Aretan.

LEMOA

13:00etan, Mendieta Herri Kirol Taldeak antolatuta, herri kirol erakusketara Elizondon.

ZEBERIO

11:00etan, Bertako produktuen XV. Azokea plazan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

TXAKURKUMEA SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz.

Artzai txakurak dira. 25 eurotan zure esku!

Telefonoa 616 440 185.

MODULO SALGAI

Moduloa saltzean da. 3 logela. Santillana del Mar kanpinean kokatuta. 16.000€. Telefonoa 606 772 896 (Mari Cruz).

PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro.

Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

ETXEA ALOKATZEKO EDO

SALTZEKO

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizilekua, kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 61 80.

DANERIK

DESBROZADOREA BEHAR DOGU

Baten batek erabili barik badauka ipini

kontaktuan mesedez. Bardin da zaharra bada. Eider: 685 70 71 76 orekuarte@gmail.com.

AREATZAN ETXEA ALOKAIKUAN

180 m² dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terrazeta. 656 716 560.

INGELESEZKO ESKOLAK

Ingelesezko eskola partikularak emoten dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

GELA ALOKATZEN DA AREATZAN

Gela alokatuten da, pisu konpartiduan, Areatzako alde zaharrean, pisu barri baten. 170 € + gastuak erdibana. Etxea ikusi edo zalantzak argitzeko deitu/idatzi: 650 009 391.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Las brujas de Zugarramurdi* filmarako.

Rosa Ugartemendia (Artea)
Joseba Larrakoetxea (Zeanuri)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Antes del anochecer* filmarako.

Begoña Picaza (Igorre)
Josu Murgia (Artea)



g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 11

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Kordela. Umeen berbetan, mosua.
2.- Nafarroako erdikaldeko udalerria.
Sentiberatasunik ez daukana.
3.- Galioa. Alboerri. 4.- Zaitu.
5.- Uztai, mako. Sufrea.
6.- Konsonantea. Tantada. 7.- Makur.
Hotza adierazoteko. 8.- Abots.
Esertzearen ekintza adierazoteko
umeen berbetan. 9.- Galdera
aurretik. Adaki.

GOITIK BEHERA

1.- Kodaina. Hatx-zulua. 2.- Opila.
Botilatik edatearen ekintza
adierazoten da. 3.- Umeen berbetan,
gozoki. Zuzen. 4.- Bokala. Elkar.
Bokala. 5.- Gartsu, sutsu. Oinarrizko
lau odol taldeetako bat. 6.- Baltsa,
osin. Estalgi. 7.- Sasoi, egotaro.
Sasitzea.



Topau Euskal Autonomia Erkidegoko zazpi parke naturalen izenak.



AKI MI KO

Aitziber

Atzerriko
enpresak
Espainian
inbertitzen
hasi dira



ppsoe

NEXT GENERATION OF POLITICIAN

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARDO

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoa
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

AKESOLO, S.A.
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizioa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

FOTOKOPIAK - PAPERBENDA
L. Agirre, E.
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa.: 94 673 64 35

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendaketa, s/n 48550 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 fax: 609 206 717

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

AKETEGLIA
GAY IS LORA
IGORRE

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA**
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 Beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a # 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia # 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdia E-3 Pabeloa (Igorre)

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmenak: A1, A, B7E, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnua.: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

L
ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: vnozalu@euskalnet.net

KARIN VAN VEEN

Zugatzetako txaboletan ostatu hartu ahal izango da Zeanuriko Zubizabalan

Zuhaitz Etxeak izeneko proiektuko ekintzailea da Karin van Veen bere gizona Emmanuel Grymonpré-gaz batera. Zeanuriko baso baten ipiniko ditue hainbat txabola eta lau prest dagozanean zabalduko dabez jenteak gauba pasetako alokatu daizan. Proiektu hau crowdfunding-en bidez finantziatu da.



Erredakzioa

Nor da Karin van Veen?

Suitzan jaiotako munduko uritarra naz. Gurasoak holandarrak dira eta beti izan dot gustukoa mundua deskubridutea: beste kultura batzuk, beste hizkuntza batzuk eta jente barria ezagutzea. 2004an Katalunian *La Selva de l'Aventura* izeneko parkea zabaldu genduan. Parkeak 15 m.ko alturan dagozan plataformetara eroaten dabenez soka-eskailerak, zubi eskegiak eta tirolinak ditu. Orduan bizimodua aldatu jatan! Bizirik dagozan zuzakak behar egitean, bide horretatik jarraituteko gogoia izan neban eta arboletan ostatu hartzeako konpleju-turistikoa bat zabaldu genduan 2007an. Hurrengo pausua, zentro honen arrakastea ikusita, beste nonon ipintea zan modu ludiko baten gure sensibilitate ekologikoa transmitiduteko.

Nortzuk zagoze proiektu honen atzean? Zergaitik Zeanurin?

Emmanuel Grymonpre nire bikoitekideak eta biok, beste zentru bat zabaltea pentsau genduan eta

Euskal Herria aukeratu genduan dituan baso zoragarriakaitik eta txabolak ipinteko arbol egokiak dagozalako, baina baita gure bezero asko euskaldunak diralako be. Proiektua guk geuk diseinatu dogu, arkitektu baten laguntzeagaz; eta egur egituretan espezialista bategaz, montatzaile talde bategaz, arotzakaz eta alturan behar egiten dauan talde bategaz montetan gabiz.

Kanpina zabalik dago?

Zentroak Zuhaitz Etxeak izango dau izena. Arboletan hamar etxetxo inguru izango ditu kanpinaren ondoan dagoan 35 ha.ko basoan. Lau prest daukaguzanean zabalduko dogu eta hau 2014ko hasieran izatea espero dogu. Bertako baserria barriztu egin dogu, harrera lekua, egongela, eta kafetegia izan daiten. Gainera, ostatua hartzeako beste modu bat be eskeiniko dogu: ijitoen burdien antzeko egurrezko etxeak. Momentuz, honeek be lau izango dira.

Ostatu emoteko arboletan txabolak ipinten dan Euskal Herriko lehenengo lekua da Zeanuri? Zenbat txabola eta

zenbat denpora euki behar dira beteta negozioa errentagarria izan daiten?

Euskal Herrian lehenengo da eta urteko egun guztietan egongo da zabalik. Helburua natureagazko kontaktuan esperientzia bat bizitea da, bizimodu apalera bueltetea eta norberaren buruagaz bariro alkartzeko astia izatea. Errantagarritasuna okupazio tasa altua daben hamar txabolatik aurrera dago kalkulatu. la Katalunian daukagun okupazio tasa lortzerik daukagun!

Crowdfunding-en bidez finantziatu dozue, ezta?

Bai. Eta inbertitzaileak sano profil desbardiina daukie, baina gehienak ez dabe orain arte produktu finantziarioetan inbertidu. Batez be, gau bat gure txaboletan pasau ostean, proiektuagaz liluratu zan jentea da euren konfidantza eta babes ekonomikoa eskeini deuskuena. Ezuste polita izan da niretzat tartean andra asko dagozala ikustea!

Hartu-emonik izango dozue arlo turistikoan bertan behar egiten dauan jente eta

proiektuakaz?

Gure lan jarduerak eremu horretako turismoa sustatzen lagundu gura dau, eta horregaitik zentrua lotuta egongo da Gorbeia parkean egiten dan guztiagaz. Izan be, gure bezeroen artean parkeak antolatutako ekintzak bultzatuko doguz. Parkea ezagutzeko ibilaldiak oinez zein bizikletaz eskeiniko doguz.

Zein arbol motatan egingo dira etxetxoak?

Batez be Douglas izeiak izango dira, ehun urte baino gehiagoko arbolak, horreetan txabolak sano ondo instalaletan dira eta. Txabolearen tamaina, arbolaren perimetroagaz erlazionauta dago eta ia aproposa dan jakiteko ikerketa sakona egiten da aurretik.

Zelan igon 20 m.tan dagoan txabola batera? Igongailurik ba ete?

Forma desbardiinak dituan eta arbolaren inguruan dagoan eskailera bat erabiliz! Txabola guztiak ondo isolatuta dagoz eta natureagaz kontaktuan modu ekologikoan, eroso egoteko behar dana daukie:

komun lehorra, norbera garbitzeko pitxar bat ur, kandelak argia izateko eta berogailua (etanolezko estufak!); batzuek argindarra, txorroto-ko ura eta dutxea be izango dabe.

Zeintzuk etorten dira arboletan ostatu hartzera?

Gure bezeroen profila sano ugaria da, baina danak gura izaten dabe gaua modu desbardiinean pasau. Diru aldetik, maila ertain, ertain-altukoa izaten da gure bezeroa eta kasu askotan bikoteak izaten dira edo lagunai, gurasoai edo seme-alabai erregalu diferente bat egin gura deutsean.

Basoak gero eta gehiago helmuga turistikoak dira. Zelan babestu eta bide batez etekin ekonomikoa lortu?

Esan daikegu gure zentruak apenas ez daukala eraginik ingurugiroan atzen hamar urteotan garatutako teknikai esker. Ondino gehiago, gure jarduera turistikoak basoen jasangarritasunari lagunduten deuto, honeri esker Baso Kudeaketa Planak aurreikusitako arbolak ez mozte lortuten da eta.



Hotel Areatza

☆☆☆ Balneario

...plana topetan

gabonetarako?

Abenduak 31

Afari Buffet Berezia

mahaiaren erdian
Iberiko aukera handia
Askotariko pateak

beroan...
Arrain zopa
Almejak saltsa berdean
Zigalak plantxan
Rape-medailoiak patata konfitatuarekin
Solomilloa bere zukuian

Buffet hotzean...
Itxaski-salpikoa
Otarraixkak
Salmoi ketua
Entsaladak

eta gure postreak
Etxeko tartak
Turroiak
Sagar konpota
Bonboiak

Informazioa eta erreserbak: info@hotelbalnearioareatza.com - 946572705

20:00etan Poteoa Hotelean trikitrixarekin urte amaiera ospatzeko

21:45ean danok afarira

00:00etan "Cava eta mahatsak"

02:30etaraino musika zuzenean

Prezioa: 90€

Abenduaren 5a baino lehenagoko erreserbak: 75€

Umeak: 35€
Bez eta edaria barne